

2012ko GIZARTE LAGUNTZA	2013ko GIZARTE LAGUNTZA
Eskabideak: 45 <ul style="list-style-type: none"> • 4 atzera botatako 8,8% • 24 ukatutako 53,3% • 17 onartutako 37,7% 	Eskabideak: 39 <ul style="list-style-type: none"> • 1 atzera botatako 2,5% • 12 ukatutako 30,7% • 26 onartutako 66,6%
%7ko kalte-maila, diru-sarreraren zenbatekoa gora behera	25.000€ arte:%3ko kalte-maila 25.001€tik 35.000€tara:.....%4 De 35.001€tik 45.000€tara:..%5 De 45.001€tik 55.000€tara:..%6 De 55.001€tik aurrera:.....%7
Hondarra: 16.467,9€	Hondarra: 5.897,66€

2013ko GIZARTE EKINTZA

Atzo, abenduak 3, sailarekin izandako bileran 2013ri dagozkion gastuei aurre egiteko laguntzen datuak eman zizkiguten. Dagoeneko argitaratu dute ebazpena EIZUN.

- Jasotako **39 eskabideetatik**, 1 atzera bota dute (epezu kanpo aurkezteagatik).
- **26 eskabide onartu** dituzte; horietako 25 odontologia gastuak dira eta 1 laguntza bidezko ugalketa.
- **12 eskaerari ezetz** esan diete, honako arrazoiak direla eta:
 - 9, kalte mailara ez heltzeagatik;
 - 2, laguntzek babestutako arrazoietatik at geratzeagatik;
 - 1, eskatutako diru kopurua emandako justifikazioarekin bat ez etortzeagatik.
- Ontzat emandako diru-laguntzak abenduan ordainduko dituzte. Osasunarekin lotutako kontuak izanik, ez dute PFEZ atxikipenik.
- **5.897,66 euroko hondarra** geratu da. I Atalari dagozkion bestelako partidak berdintzera zuzenduko omen dute; horietan, nonbait, ez da dirua heltzen, hain zuzen “ordezkapenak eta errefortzuak” aipatu zuten.

Iazkoaren aldean, oraingo ekitaldian eskabide gehiago onartu dituzte, proportzioz (ikusita taula). Horrek ekarri duena da geratu den diru hondarra txikiagoa izatea. Gutxieneko kalte kopurua ezartzeko mailakako eskala erabiltzeak eragin du laguntzak jasotzeko sistema bidezkoagoa, eta, horrekin bat, onuradun kopuruak gora egitea.

Hala ere, dotazioa ez da agortzen eta hondarra bestelako kontzeptuetara zuzentzen da. Hori dela eta, laguntza jasotzeko eskubidea malgutu beharra dago eta baldintzak aldatu, esaterako, kobratzeko gutxieneko eta gehieneko kopuruak ezabatzea.